ITXARONALDIA

MAIDER MURUGARREN OSA
DBH 3. eta 4. kurtsoak 1. saria
Zizur Txikiko San Fermin Ikastola

Hotz zen. Elur malutaren batek zeruko atzapar zuriei ihes egiten zien, bihurriki, izoztutako haizeak kulunkatuta lurrerantz leunki jaitsiz. Nire erlojuari begiratu nion. 40 minutu neramatzan zain. Zerbait gertatu ote zitzaion? Ideia hartara indarrez heldu nahi nuen, ziurrenik nire amona gure zitaz ahaztu zela onartzeko ezgai.

Azken aldi honetan bere burua ez zen lehengoa. Nostalgiaz, gogora etorri zitzaizkidan herrian biok konpartitutako orain hain urrun geratzen ziren egun haiek, nik 6 urte besterik ez nituela. Betidanik eskuekin hain trebea izan zen, trazuak paperean azaltzen ziren heinean marrazkiek bizia jasotzen zutela zirudiela. Baina bere trebetasuna ez zen diziplina horretara mugatzen, bere benetako artea joskintza zen. Era berean soineko bat konpontzen edo egiten zidan. Nire amona zen, baina aldi berean oso pertsona berezia; nik garai horretan egiten jakitea desiratzen nuena zekien berak egiten, eta ni hori egiten ikasteko irrikatan nengoen. Gogo biziz, egunero josten ikasteko zereginean kementzen nintzen, nahiz panpina bat nahiz harentzako soinekoak. Baina nire emaitzak, normala den bezala, nire itxaropenetatik oso urrun geratzen ziren, hortaz, ni ez desilusionatzeko, berak beti konpontzen zituen. Ni zoriontsu egiteko helburu bakarrarekin. Bere ezpainetan irribarre gozo bat agertzen zen bitartean, eskuen artean nire panpina berriari eusten ziolarik, bere aurpegi onbera prezisioz gogora ekartzeko gai nintzen ...

Haize bolada bortitz batek errealitatera berritzuli ninduen, aire hotza hezurretaraino sartu zitzaidan, ni guztiz izoztuta utziz. 45 minutu. Itxaroten jarraitu behar al nuen? Bat batean, poliki hurreratzen ziren pausu batzuk entzun nituen, buelta eman nuen, itxaropenez. Nere desilusiorako, amona bat zen, bai, baina ez nirea, bere 8 urte inguruko bilobarekin lasaiki paseatzen zihoana. Malenkonia sentimendu batek menperatu ninduen. Adin horretan nire amonari estuki lotuta nengoen. Arratsalde guztietan, ikastolatik ateratzerakoan, berak itxoiten zidan txokolate bokata, nire gustukoena, eskuetan eta bere irribarre abegitsua, ezpainetan zuelarik, nire parke gogokoenera eramateko prest. Baina denboraren joanak, nerabezaroak, berarengandik urrunarazi ninduen. Ia ez nuen bisitatzen eta bisitatzen nuenean jadanik ez zen lehen bezala ...

Zerura begira galdu nintzen, nire baitan murgildurik, arrangura eta kulpa sentimendu batek nire barnean indarra hartzen zuen bitartean. Gauzatzen nituen bisita puntual eta laburretan zehar ia ez nuen berarekin hitz egiten, edo behintzat ez bere pertsonan benetan interesatuz. Gure elkarrizketa motz gehiengoen gai nagusia nire ingurukoa zela ulertu nuen. Hauek, bazkaltzeko orduan gauzatzen ziren eta bazkaldutakoan ni aldentzen nintzen. Gainera, batzuetan huskeriengatik eztabaidatzen genuen.

Errealitatera itzuli nintzen izoztutako mihi batek nire masaila leunki miazkatzen zuela sentitzerakoan, nire ezpainen ertzeraino jaitsiz. Sudurra zimurtu nuen nire begietatik ihes egitea lortu zuen malko bakartiaren zapore gazia ezagutzerakoan. Eta nire baitan pentsatu nuen, ez nintzela berriro modu horretan portatuko, orain nik nire amona zoriontsu egiteko aldia zelako, nik nire haurtzaroan beraren beharra izan nuen bezala momentu honetan berak zuelako nire beharra.

50 minutu. Nire kezka uneen joanarekin hazten zen. Nire amonari burua joan zitzaion eszena batzuk ikusiak nituen baina inoiz ez hainbeste denboraz.

Gogora ekarri nuen, janaria prestatzen ari zela ahaztu zuen lehenengo aldia, komunera momentu bat joaterakoan nik hiztegia non zegoen galdetu niolako. Ez zuen gogoratu lehenago zertan ari zen, ni sumatzen hasia nintzen erre usain barrenkorrari buruz galdetu arte. Zartagina kiskali zen eta bitrozeramikak nahiko kalte larriak jasan zituen. Kasu horretan, ordea, bere oroimenaren galera moduren batean zurigarria zen. Burura etorri zitzaidan ere, nire piano klasera berandu iritsi nintzen eguna bere zain ordu erdia egon bainintzen. Egun horretan, ordea, berak ziurtatzen zuen nik esan niola bostak eta erdietan etortzeko nire bila eta ez bostak puntuan.

Baina oroitzapen guzti hauek oker nahiko txikiak ziren eta orain, berriz, ia ordu bat neraman itxaroten, nire amonaren oroitzapen galerak ez ziren inoiz hain luzeak izan. Kezkati, alzheimerrez gaixo ote zegoen serioski planteatzen hasi nintzen nire mugikorraren soinua entzun nuenean.

–Lidia, “Dia”–ren aurrean ordu bat daramat zu itxaroten, ahaztu egin al duzu?– galdetu zuen linearen beste aldetik nire amonaren ahots leun arinki haserretuak.

–Baina ...– aurka egitera abiatu nintzen, nire ingurura begiratzerakoan nire akatsa antzeman nuenean, “Eroski”-aren aurrean nengoen– amona, arrazoi duzu– zuzendu nuen doinu amultsuan– okertu egin naiz “Dia”-ra joan beharrean “Eroski”-ra etorri naiz.

–Ai neskatila, eta gero esaten dute adineko pertsonei burua joaten zaigula, gustatuko litzaidake jakitea non daukazun zuk burua ...

Bat-batean algara ozen bat, asaskaldi eta zoriontasunaren nahasketa, nire barnetik irten zen.

–Amonatxo, badakizu gauza bat ... maite zaitut– amaitu nuen.